



## **HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA**

**Data:** 2018/01/17

**Bilera zenbakia:** 01

**Bilera ordua eta lekua:** 19:00etan udaletxean

**Parte-hartzaileak:** Rosi, Nekane, Marijo, Tere, Amaia, Iker eta Maddi

## **LANDUTAKO GAI ORDENA**

### **1. KULTUR AGENDAREN ERREPASOA**

#### **- Talo festa eta euskararen eguneko ospakizuna**

Talo festa oso ongi atera zen. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere jende asko hurbildu zen eta janari guztia amaitu zen. Labe industrialak asko erraztu zuen lana eta gustura geratu ginen emaitzarekin. Argazki erakusketa ere oso gustukoa izan zen, sinplea bazen ere, azken urteetako eboluzioa ongi islatzen zuen.

Euskararen aldeko krosa ere oso ongi baloratu dute euskara taldekoak. Eguraldia ikusita ez zegoen garbi aurrera jarraituko zen ala ez, baina azkenean, jende ugari bildu zen. Eskola ere lanketa egin zuten, petoak margotuz eta horrek asko laguntzen du giroa berotzen. Arratsaldeko ekintza hau baliagarria izan zen jendea erakarri eta ondoren taloak jaten geratzeko, beraz, hurrengo urterako ere horixe bera proposatzen da, hau da, euskararen eguna astelehen batean bada ere aurreko larunbatean egingo da ospakizuna, talo festarekin batera.

#### **- Gotzon Izquierdoren erakusketa**

Zaintza egiten egon ziren aipatu dute ez zela jende askorik inguratu, baina guztira egun eta ordu dezente ziren, beraz, uste dugu sakabanatuta jende pixka bat gerturatu zela. Oso ideia ona zen eta artista bera oso gustura geratu zen. Hurrengo erakusketa ere gustura prestatuko dugu.

#### **- Olentzero eta Mari Domingiren etorrera**

Ondo atera omen zen. Jende asko biltzen da egun honetan eta hurrei asko gustatzen zaie. Elkartean hamaiketako prestatu zuten eta ondo moldatu ziren, urtero kuadrillatxoak elkartzen dira eta gustura ibiltzen dira.

#### **- Ipuin kontalaria**

Berezia eta polita izan omen zen. Guraso elkarteko kideak aipatu zuen ez zela jende gehiegirik agertu, data zailak izaten dira horrelako zerbait egiteko, baina agertu zirenak gurtura geratu omen ziren. Ipuin kontalaria berak ere oso ongi baloratu zuen saioa.

## HEMENDIK AURRERAKOAK

### - Otsailak 3 IJITTO EGUNA

Guraso elkarteak arduratzen da hau antolatzeaz eta bihar omen dute bilera. Printzipioz ez dute aurreikusten aparteko laguntzarik beharko dutenik, bestela eskatuko dute. Ekintzaren inguruko difusioa egiteko informazioa bidaliko dute udalera eta pantailetan nahiz whatsapppean bidaliko da.

### - Otsailak 3 Euskal Herriko Mus Txapelketa

Ijito egunarekin batera, EHko Mus Txapelketa ere jokatu da. 15:30etan izango da izen ematea eta 16:00etan hasiko da txapelketa, Kaxintan. Maddi arduratuko da difusiorako materiala egiteaz.

Informazio honekin batera gehitu da urriaren 20an **jubilatuaren martxa** bat egingo dela eta jende asko espero dutela, 600 inguru diote. Martxa Legorretatik hasi eta Itsasondora etorriko da. Bazkaria Legoretan badute ere, jubilatuen elkarteak aipatzen zuten Itsasondora iritsitakoan hamaiketakoaren bat egiteko ideia daukatela. Ekintzaren dimentsioa ikusirik, Herri Bizitza taldeak eta bertan parte hartzen duten eragileek laguntzeko borondatea azaldu dute. Beraz, informazio gehiago daukatenean, batzordean elkarbanatu eta behar den laguntza emango antolatuko da.

## 2. 2018rako Herri Bizitza partidarako dauden proposamenak azaldu dira

- Kulturgunean erakusketak jartzeko sistema 3.000 €
- Soinu ekipo eramangarria 500 €
- Menajea osatzeko partida 300 €
- paellera erraldoia eta bere sua 3.000 €

Honetaz gain, **plater** berrerabilgarriak baditugula eta hauek erabiltzeko deia egin da.

Gainera, 2017an **labe industrialak** erosi zenez, honen araudia banatu eta hau erabiltzeko deia ere egin da.

## 3. 2018an zehar landuko ditugun gaiak

Aurreko urtean landutako gaiak erreparatuta, ikusi dugu hilabete bakarrean ez duela astia ematen gaiak osotasunean landu eta emaitza produktibo batzuk ateratzeko. Hori horrela, aurten, gaiak bi hilabetetan lantzea erabaki dugu eta beharrezkoa balitz 3tan.

Bestalde, iraileko batzordea kendu egin dugula gogorarazi da, jai batzordearekin nahiko lanpetuta ibiltzen garelako.

Azkenik, urte guztia ez betetzea erabaki dugu, urtean zehar, gai desberdinak sortzen joaten baitira eta hauen arabera beharrezkoa baita malgutasuna izatea.

Hau kontuan izanik, hurrengo hilabetetarako honakoa aurreikusi dugu:

- OTSAILA (eta behar bada MARTXOA): Komunikazioa – Elkarte eta udalaren arteko komunikazioa nola arindu eta erraztu, herrian ditugun komunikazio baliabideei ahalik eta probetxu gehien nola

atera aztertu, orain arte dituguna baloratu eta behar bada berriak proposatu...

- MARTXOA eta APIRILA (agian aldaketak egongo dira): Euskara taldea – Itsasondo herri euskalduna izanik, balore hauek nola transmititu, euskara taldea nola indartu, indarra hartzeko proposamenak pentsatu...
- MAIATZA eta EKAINA (agian aldaketak egongo dira): Itsasondo 2.0 – balorazioa, proposamena aztertu eta praktikara eramateko bideak egin, atal berriak proposatu, orain daudenak kendu, lan taldea handitzeko aukera aztertu...

Hemendik aurrera suertatzen joango diren gaiak txertatuko ditugu Herri Bizitzako batzordeetan.

<b>ETXEKO LANAK</b>	<b>NORK</b>	<b>NOIZKO</b>
Komunikazioaren gaia prestat	MADDI	14/02/18
<b>HURRENGO BILERA</b>		
<b>Hurrengo bilera OTSAILAREN 14an izango da.</b> <b>GAIA: KOMUNIKAZIOA</b>		